

## Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



**Perfektuak**  
**Rodrigo Muñoz Avia**  
 GILTZA  
 202 orrialde  
 7,35 euro

## Edebé Haur Literatura saria

Rodrigo Muñoz Avia idazle madrildarrak hamar urtetik aurrerako neska-mutikoentzat sortutako *Los perfectos* kontakizunak irabazi zuen azken Edebé Haur Literatura saria. Fernando Reyk egindako itzulpenari esker irakur dezakegu orain euskaraz. Familia perfektuaren seme izateaz gogaiturik dagoen hamaika urteko mutikoa da protagonista. Bere familia zelatatzeagatik bizi behar izaten dituen ezustek azaltzen dira liburuan. Alex –hala deitzen da mutikoa– ez da akatsik gabea: besteak beste, azken ebaluazioan bi suspentso izan ditu. Dena den, badu lagun handi

bat, suspentsoak eskuratzen bera baino trebeagoa dena. Baina haren bultzadari esker ezagutuko du Alexek hobeto bere familia. **I**




**Guerendiain**  
**Juan Carlos Ramírez-Escudero**  
 EL ECO DE VALDEGOBÍA  
 174 orrialde  
 15 euro

## Bizia salbatu zionari fusilatzean purua errez erantzun ziona

1936an Franco eta bereak Espainiako II. Errepublikaren aurka matxinatu zirenean lehertutako gerraren ondorioez hitz egiten du Juan Carlos Ramírez-Escuderoen *Guerendiain*. *Traición y muerte ante el pelotón de fusilamiento* nobelak. Ekintza 1936ko irailean hasten da: Errepublikaren aldeko indarrak, Irun aldean, gainera datozkien erreketeta eta eskuindarrei aurre egin nahian dabilta. Orduan, Nicolás Guerendiain erradikal-sozialistak bizia salbatuko dio ezkertiarrek Guadalupeko fortean fusilatu nahi duten Javier Apalategui eskuindar epelari. Urtebete beranduago, Guerendiain izango da fusilatzeari aurre egin beharko diona. Beragatik ez balitz hilik izango zenari laguntza eskatuko dio, baina Javier Apalateguik ez dio emango. **I**

## Gazteentzat poesia Kazabonen eskutik

Berrogeita hamar liburutik gora plazaratu ditu Antton Kazabonek, batez ere haur eta gazte literaturan. Ipuinak, nobelak, bertsoak eta olerkiak dira gehien lantzen dituen generoak. Eta hain zuzen ere, gaztetxoenei zuzendutako olerkiekin datorkigu Pamiela argitaletxean kaleratutako *Irrikaren distira* izeneko liburuan. Maitasunezko olerkiak dira batzuk –*Zure bila nabilenean/ kamioa bide/ orbelak aire/ itzala lagun/ gau eta egun, (...)* malura urrun/ gau eta egun/ Bidea elkarrekin goza dezagun.–; bizitzan egokitzen zaizkigun zenbait parada ilunei eskainitakoak besteak –*Zenbat denbora/ lagun artean isolaturik, / zaratapean gor, / bizketan sentitu gabe, / jende artean bakarririk–*, eta bizitzako beste goiti-beheitiei buruzkoak ere bai: *Gazteak ez daki/ zabartzaroa dela/ eskolako ikas mailarik zailena/ Orain arte denek gainditu duten/ azken ikas maila.* **I**



**Irrikaren distira**  
**Antton Kazabon**  
 PAMIELA  
 64 orrialde  
 7 euro

## Gurasoak banantzeaz

Kamile kezkatu dago. Gurasoak eztabaidan entzun ditu, eta horren ondorioz gerta daitekeenaren beldur da. Unai jolas-orduan azaldutakoa dauka gogoran. Hark bi urtebetetze eta bi logela omen ditu, gurasoak banandu direlako. Orain ezin du sekula aitaxo eta amatxorekin batera egon, baina halere mutikoak badu zertaz poztu, gurasoek ez dutelako jada eztabaidatzen. Lehengo haserreak Unai ondo gogoratzen ditu. Bera izaten zen maiz ika-mika horien zioa, eta uste du beharbada bere erruz banandu zirela aita eta ama. Kamilek bere gurasoen liskarra entzun duenean –egongela arrosaz edo berdez tapizatzeke ez ziren ados jartzen–, gogoratu du txikia zenean egongelako tapiza nola apurtu zuen. Amatxo eta aitaxoren haserrearen arrazoia bera dela uste du, amatxok ezetz esan dion arte. **I**



**Kamile. Aita eta ama ez daude haserre**  
**Aline de Pétigny**  
 TARTTALO  
 20 orrialde  
 4,70 euro



**Bizkaiko  
arraunaren  
urrezko urteak  
(1976/1985)**

**Manu Etxeberria**

MANU ETXEBERRIA  
200 orrialde / 18 euro

## Arraunlari bizkaitarren historia

*Euskal arraunketaren aro modernoa* du izenburu Manu Etxeberria Sedano oriotarra prestatzen ari den bildumak. Argazkiz beteriko liburuak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi ditu. 2005ean *Oriotarren iraultza (1965-1975)* argitaratu zuen eta *Bizkaiko arraunaren urrezko urteak (1976-1985)* plazaratu du orain. Sestaoko Kaikuk Jose Luis Kortaren gidaritzapean lau urtetan, eta Santurtziko Soterak Koldo Urziagaren eskutik hirutan Kontxako bandera irabazi zuten epealdia jasotzen duen liburua. Urte haietako hemerrotekan sakonduz,

estropada garrantzitsuenen emaitzak eta bereziki aukeratutako 100 argazki aurkeztu ditu Manu Etxeberriak. ■


## Maiatz aldizkariak 25. urteurrena ospatu zueneko

Baionan, aldizkariaren sorlekuan, maiatzeko larunbat goiz batean ospatu zuten *Maiatz*ekoek eta beraiekin bat egin zuten lagunek aldizkariaren 25. urteurrena. Ohiko kolaborazio literarioez gain, bilera hartan azaldutako gogoetak jaso ditu aldizkariaren 45. zenbakiak. Idazle izaeraz, Gogoetalarien artean, hauexek daude: Jose Angel Irigarai, Itxaro Borda, Eñaut Etxamendi, Piarres Aintziart, Aurtin Zamora, Txema Larrea, Itziar Madina, Nora Arbelbide eta Antton Luku. ■

**Maiatz**

**Batzuen artean**

MAIATZ  
76 orrialde / 7 euro



ARTEMIO ZARCO

## «Nolako hitza erabiliko nukeen lana definitze- ko? Lotsagabea!»

Zure azken nobela hau bihurrikeria da. Bestela, nola zehatz daiteke bere mamia?

Nolako hitza erabiliko nukeen *Ese final que os acecha* definitzeko? Lotsagabea!

Narratzailea ez da nolana hiko. Duen dirua galtzeagatik, idazle taldekoen esklabo bilakatzen da. Haren kon-taketari nabarmenduko zenizkiokeen ezaugarriak?

Narrazioa hasi aurretik irakurleari bere burua aurkezteko erabili ditudan hitzetan dago gakoa. Egile-a, kontrolatzen ez duen baldintzapen genetikoren batengatik, ziurrenik, oso katramilatsua da, eta bere gogoak han eta hemengo gorabeheretan barreatzeko joera du lanaren aurreneko partean. Gero, gorabehera horiek lotura logikorantz bideratzen ditu, hala ere.

**Hilketa bat, harekin lotutako bigarrena, eta bukaera aldera, hekatonbea, ezagutzen ditugun pertsonaieta-tik ia guztiak hilik! Zergatik?**

Liburuaren amaieran, nobelan egin ditudan era guztietako gehiegikeriak barkatuko zaizkidan asmoarekin ematen ditudan azalpenen artean, dagokion Auzitegiko aretoan epailearekin batera hiltzen diren pertsonaien multzoaz hitz egiten dut. Egia esateko, erabat galdurik nuen haien kontrola. Pirandellok esan zuen aspaldi: pertsonaiak nolabait independizatu egiten dira egilearengandik eta bere bizitza egiten dute. Hori da gertatu dena. Pertsonaia horiek, bost bonbona batera lehertu izanaren ondorioz bizia galtzen duten horiek, eskuarte-tik ihes egin zidaten pertsonaiak ziren. Denak hiltzearen arrazoia? Oso erraza da. Jadanik ez nekien zer egin beraiekin.



## Nobela bihurria da Artemio Zarcoren azkena

Artemio Zarcoren *Ese final que os acecha* irakurtzerakoan, honako gogo-

eta sortzen zaio norberari: “Ene, zeinen ondo pasako zuen egileak hau idazten!”. Hainbestekoak dira tes-tuan ageri diren ironia eta gaiztakeria. Donostian kokaturik dago, eta bertako faunaren partaideak dira protagonista guztiak: Barandiaran kafetegian biltzen den idazle taldea –norbaitek hiltzen duen banketxe-ko arduraduna barne–; haien zerbitzuan aritzea-gatik espetxera eramango duten narratzailea; idazle taldeko mutil polit bezain tonto batez zeharo maitemindurik dago-elako beste oro ere har-taz maiteminduta behar duela uste duen epaile zorrotza; haren emaztea, senarraren maiteminaz-tutik ez dakiena; Martu-teneko espetxean lanean diharduen funtzionarioa; narratzaile sinesga-bearen aitor-entzule



**Ese final que os  
acecha**

**Artemio Zarco**

EREIN

222 orrialde

17 euro

jesuita; jesuita horrek babestu nahi duen nes-katoa... Eusko Jaurlari-tzak antolatutako litera-tur lehiaketako irabazle izan nahi lukete idazle taldeko guztiek –baita aurkeztekoak ez direnek ere–, eta horretarako edozer egiteko prest daude. Idazle gaitasune-tik eta irudimenetik gutxi dutenez, beren zerbitzuan duten narra-tzaileari eskatuko diote laguntza. ■

egileari galdezka